



Plan Estrategikoa



Plan honek 2026. urtetik
2029. urtera arte balio du.

Dokumentuaren izenburua:

GAUDEren Plan Estrategikoa.

Plan honek 2026. urtetik 2029. urtera arte balio du.

Planaren egileak:

GAUDE elkarteak.

Equipo motor y equipo de redacción:

Aitor Campos, Amaya Prado, Ander Aurre, Ane Rastrero, Beatriz Parra, Carlos Alonso, Carlos García, Cristina Celaya, Elena Domínguez, Gorka Goikoetxea, Idoia Sánchez, June González, Mariate Orue, Nagore Gorrochategui y Tatiana Urien.

Diseño y maquetación:

José Eduardo Pérez.

Traducción:

Servicio de traducción del Ayuntamiento de Getxo

Adaptación y validación a lectura fácil:

Servicio de accesibilidad cognitiva ErrazTEA.



@ Lectura fácil Europa: Inclusion Europe.
Más información en www.easy-to-read.eu

© ErrazTEA www.erraztea.apnabi.eus

Irakurketa erraza idazteko teknika bat da, irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonen ulermena errazten diena.

Edukiak

Zer da Plan Estrategiko bat? 4. orrialdea



1. ardatza

Adimen - desgaitasuna duten pertsonei laguntzea eta pertsona horien parte-hartzea..... 8. orrialdea



2. ardatza

Familiei laguntzea eta familien parte hartzea..... 10. orrialdea



3. ardatza

GAUDEren etika eta balioak 12. orrialdea



4. ardatza

Parte-hartzea eta gure inguruarekiko lana 14. orrialdea



5. ardatza

Etorkizuna zaintzea eta ideia berriak erabiltzea 16. orrialdea



1. zeharkako ardatza

Gure lanaren ebaluazioa..... 18. orrialdea



2. zeharkako ardatza

GAUDEren barruko eta kanpoko komunikazioa..... 20. orrialdea

Zer da Plan Estrategiko bat?

Plan estrategikoa erakunde baterako

gida gisa balio duen dokumentua da.

Planean, erakunde batek lortu nahi dituen helburuak

eta horiek lortzeko

egingo dituen jarduerak daude.

Plan Estrategikoak

4 urtean behin egiten dira.

GAUDEren Plan Estrategikoa

GAUDEn Plan Estrategiko bat sortu dugu

hurrengo 4 urteetarako.

Hau da, 2026tik 2029ra arte.

Planaren helburu nagusia

adimen - desgaitasuna duen pertsona bakoitzak

eta bere familiak bizitza ona izatea da.

Helburu hori lortzeko,

GAUDEn pertsona guztien eskubideak errespetatzen dituzten laguntzak eta aukerak eskaintzen ditugu.

GAUDEn pertsona guztiek gizartean berdin parte hartzea nahi dugu.

GAUDE urte luzez elkarte indartsu eta justua izan dadin lan egiten dugu.

Plan honetan parte hartu dute:

- adimen - desgaitasuna duten pertsonak,
- familiek,
- langileek,
- Zuzendaritza Batzordeak
- eta **boluntarioek**.

Boluntarioa:

Modu solidarioan jarduerak egiten dituen pertsona da. Hau da, boluntarioek ez dute dirurik jasotzen haien jardueren truke.

Nola antolatzen da plan hau?

GAUDEren Plan estrategikoak 7 ardatz ditu.

Plana antolatzen duten gaiak dira ardatzak.

Planak honako hauek ditu:

- 5 ardatz nagusi.

Ardatz nagusiek planaren

idea garrantzitsuenak jasotzen dituzte.

1. ardatza: Adimen - desgaitasuna duten pertsonen laguntzea eta pertsona horien parte hartzea.
2. ardatza: Familiei laguntzea eta familien parte hartzea.
3. ardatza: GAUDEren etika eta **balioak**.
4. ardatza: Parte-hartzea eta gure inguruarekiko lana.
5. ardatza: Etorkizuna zaintzea eta ideia berriak erabiltzea.

Balioak:

Balioak erabakiak hartzen

laguntzen diguten arauak dira,

zuzena edo okerra zer den kontuan hartuta.

- 2 zeharkako ardatz.

Zeharkako ardatzak

ardatz nagusi guztietan dauden alderdiak dira.

1. zeharkako ardatza: Gure lanaren ebaluazioa.

2. zeharkako ardatza: GAUDEren barruko eta kanpoko komunikazioa.

Ardatz bakoitzak helburu eta ekintza zehatzak ditu.

Horrela, gure lana ebaluatu dezakegu

eta pertsonen bizitza hobetzen laguntzen duen jakin dezakegu.

1. ardatza:

Adimen – desgaitasuna duten pertsonei laguntzea eta pertsona horien parte-hartzea

Gauden lesgaitasun intelektualak duten pertsonak
beren erabakiak hartu
eta bizitzan dituzten helburuak lortzeko lan egiten dugu.

GAUDEn pertsona bakoitzak behar duena
eta nahi duena entzuten dugu.

Pertsonarekin eta haren familiarekin lan egiten dugu
behar duten laguntza emateko.

GAUDEn plan pertsonalizatuak erabiltzen ditugu
pertsona bakoitzak behar
dituen laguntzak antolatzeko.



Gure zerbitzuak ere hobetzen ditugu,
behar berriak kontuan hartuta:

- Zahartze aktiboa.
- Helduaroa.
- Bizimodu independentea.
- Enplegua eta laneratzea.
- Beste diagnostiko batzuk dituzten pertsonak.

Gainera, gure zentroak eta informazioa
ulerterrazak dira pertsona guztientzat.

Zer egingo dugu 1. ardatzean?

- Adimen - desgaitasuna duten pertsonak
eta haien familiak erabakien erdigunean jartzea.
- Pertsona ardatz duen laguntza-eredu batetik lan egitea.
Eredu honek pertsonen nahiak
eta beharrak errespetatzen ditu.
- Pertsonen beharrei erantzuteko
laguntzak eta zerbitzuak hobetzea.

2. ardatza:

Familiei laguntzea eta familien parte hartzea

GAUDE adimen - desgaitasuna duten pertsonen familiek osatzen duten elkarte da.

GAUDEn familiak oso garrantzitsuak dira:

- Pertsonen beren egunerokotasunean laguntzen dietelako.
- Elkartean parte hartzen dutelako.

GAUDEen familiei honako hau ematen diegu:

- informazioa,
- laguntzak
- eta akonpainamendua

adimen - desgaitasuna intelektuala duten pertsonen eskubideak defendatzeko eta erabaki garrantzitsuak hartzeko aukera izan dezaten.



Zer egingo dugu 2. ardatzean?

- Familiei laguntza ematea,
beren interesen eta kezken arabera.
- Topaguneak sortzea,
familiek bat egin dezaten
eta elkartean parte har dezaten.

3. ardatza:

GAUDEren etika eta balioak


GAUDEn etika eta balioak oso garrantzitsuak dira, adimen - desgaitasuna duten pertsonak eta haien familiak errespetatzeko nola lan egin behar dugun esaten digutelako.

GAUDEen nahi dugu:

- Pertsona guztientzako **eredu etikoa** edukitzea.
- Pertsona guztiak berdin tratatzea.
- Pertsonak elkartean parte hartzera animatzea.

Ereduetikoa:

Ereduetiko batek pertsonei laguntzen die egoera desberdinetan zuzen jokatzeko. Ekintza bat ona edo txarra den zehazten laguntzen du.



Zer egingo dugu 3. ardatzean?

- Pentsatzeko modua aldatzea
eta gure eredu etikoaren arabera jokatzeko.
- Erakundean parte hartzeko
eta lidergoa hartzeko modu berriak sortzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin
dugun konpromisoa indartzea.

4. ardatza:


Parte-hartzea eta gure inguruarekiko lana

Adimen - desgaitasuna duten pertsonak gizartean parte hartzeko eskubidea dute.

GAUDEn lan egiten dugu pertsonak beren komunitatean modu aktiboan parte har dezaten. Hau da, beren auzo, herri edo hirietako zerbitzu eta jardueretan.

GAUDEn gure inguruko beste pertsona eta erakunde batzuekin lan egiten dugu:

- Adimen - desgaitasuna duten pertsonak ingurunean parte hartzeko aukera berriak sortzeko.



- Gizartea inklusiboagoa izan dadin eta pertsona guztiak errespeta ditzan.

Zer egingo dugu 4. ardatzean?

- Pertsonak beren ingurunearekin lotuko dituen lan egiteko modu bat garatzea.
- Politikan eta gizartean parte hartzea, adimen - desgaitasuna duten pertsonen eskubideak defendatzeko.
- Gizartea eraldatzeko eta hobetzeko **sentsibilizazio-ekintzak** eta boluntariora-ekintzak egitea.

Sentsibilizazio-ekintzak:

Jendeari arazo bat hobeto ulertzen eta arduratzen laguntzen dioten jarduerak.

5. ardatza:

Etorkizuna zaintzea eta ideia berriak erabiltzea

GAUDEn jasagarriak izan nahi dugu.

Hau da, gure elkarte eta bere zerbitzuak urte luzez onak izatea nahi dugu.

GAUDEn berrikuntza nahi dugu.

Hau da, pertsonen babesa emateko modu berriak eta sortzaileak bilatzea.

Berrikuntzak hobetzen eta pertsona bakoitzak behar duenari hobeto erantzuten laguntzen digu.

GAUDEn baliabideak eta elkarteko profesionalak zaintzen ditugu.



Zer egingo dugu 5. ardatzean?

- Dirua arduraz kudeatzea.
- Ingurumena eta gure inguruko baliabideak zaintzea.
- GAUDEn lan egiten duten pertsonei babesa ematea, beren lana ondo egin dezaten.
- Irtenbide berriak bilatzea gure zerbitzuak hobetzeko.
- Egiten dugun guztiak kalitate ona duela ziurtatzea.

1. zeharkako ardatza:


Gure lanaren ebaluazioa

GAUDEn gure lana ebaluatzen dugu:

- Gure lana ondo eginda dagoen eta kalitate onekoa den jakiteko.
- Gure helburuak betetzen ditugun jakiteko.

GAUDEn pertsonen bizitzan gertatzen diren aldaketak ezagutu nahi ditugu.

Zer aldaketa edo sentrazio sortzen ditugun jakiteak hobetzen eta erabaki hobeak hartzen laguntzen digu.



GAUDEn ebaluazioa erabiltzen dugu ikasteko.
Argiak izateak eta egiten duguna berrikustea
gure balioak errespetatzen laguntzen digu.

Zer egingo dugu 1. zeharkako ardatzean?

- GAUDEn egiten dugun lana eta jarduerak berrikustea.
- Gure lanaren emaitzak ebaluatzea, pertsonen bizitza nola hobetzen den jakiteko.

2. zeharkako ardatza: GAUDEren barruko eta kanpoko komunikazioa

Komunikazioa informazioa hauen artean trukatzea da:

- adimen - desgaitasuna duten pertsonak,
- familiak
- eta langileak.

GAUDEn komunikazioa irisgarria izatea nahi dugu.

Hau da, ulerterraza pertsona guztientzat.

Komunikazio irisgarriak laguntzen du

pertsona guztiek parte har dezaten

eta erabakiak har ditzaten.

GAUDEren barruko komunikazioa garrantzitsua da

pertsona guztiok modu bateratu

eta koordinatuan lan egin dezagun.



GAUDEren kanpoko komunikazioak balio du:

- gizarteak gure lana ezagutzeko,
- pertsonen eskubideak defendatzeko
- eta gizarte inklusiboagoa sortzeko.

Zer egingo dugu 2. zeharkako ardatzean?

- GAUDEren barruko komunikazioa hobetzea, langile guztiak koordinatuta egon daitezen.
- Gizartearekiko komunikazioa hobetzea, gizarteak gure lana hobeto ezagutu dezan.

